ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 28a, asteazkena • 124 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundiaren iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

"Laguardian (Araba) Carralogroño, Musco eta Carravalsecako urmaelen ingurumena itxuraberritzeko proiektua"k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2026ko urriaren 20ean egindako bilkuran, 681/2026 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

"Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan kokaturiko Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektua" eta eraginpeko ondasunen eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean jartzeko aldian aurkeztutako alegazioen erantzuna. Proiektua eta haren eraginpeko ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presaz okupatzeko beharra adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 2026ko abuztuaren 4ko 542/2026 Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion ES2110021 Laguardiako Aintzirak KBEan dauden Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektuari eta proiektu horren eraginpeko ondasunen eta eskubideen hasierako zerrenda zehatz eta banakakoari, eta jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea egin zen.

Proiektuaren jendaurreko informazio epean, hasierako onespena jaso zuen proiektuari alegazio idazki tekniko bat aurkeztu zitzaion. Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak alegazio horri buruzko txostena egin eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzak onartu ondoren, bere egin du Gobernu Kontseiluak. Horrela, alegazio horrek oinarri eta justifikazio gisa balio du erabaki honetarako, eta alegazioa aurkeztu duten pertsonei helaraziko zaie, haien alegazioak baiesteko edo ezesteko erabakia behar bezala arrazoitzeko.

Jendaurrean jartzeko prozedura amaitu eta aurkeztutako alegazioei erantzun ondoren, bidezkoa da behin betiko onestea Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan kokaturiko Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektua, hasieran onetsitakoari eutsita.

Proiektuaren eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerenda jendaurrean egon den aldian 7/000, 8/000, 10/000, 11/000, 14/000 15/000 finken titularrek, 6/000, 35/000 eta 36/000 finken titularrek eta 16/000, 17/000, 18/000, 19/000 eta 30/000 finken titularrek alegazio idazkiak aurkeztu dituzte, Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak onartu, eta Gobernu Kontseilu honek bere egiten ditu. Horrela, alegazio horrek oinarri eta justifikazio gisa balio du erabaki honetarako, eta alegazioa aurkeztu duten pertsonei helaraziko zaie, haien alegazioak baiesteko edo ezesteko erabakia behar bezala arrazoitzeko.

Aurreko izapidea bete eta eraginpeko finken jabariaren eta kargen ziurtagiriak jaulki ondoren, bidezkoa da proiektu honen eraginpeko ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea, kontuan hartuta eraginpeko finken aprobetxamenduak eta eraginpeko finken erregistroko titularrak.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi baterako okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, presako okupazioa adierazi beharra dagoela. Horiek horrela, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, kontuan hartu behar da proiektuak zer helburu lortu nahi dituen eta zer garrantzi daukan lanaren xede den eremuan azkar esku hartzeak, ikusita aintziretan dauden habitatak eta espezieak egoera ahulean daudela, eta, oro har, ekosistema oso eutrofizatuaren kontserbazio egoera eskasa dela, zeinaren kalitatea eta gaitasun biologikoa nabarmen jaitsi baita, biodibertsitatearen iraupena arrisku larrian jarriz. Horrexegatik eskatzen da presako okupazioaren adierazpena egiteko, ingurumena lehengoratzeko lanak ahalik eta lasterren hastearren.

Izan ere, URA Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko laku, barneko hezegune eta urtegien zaintza-sarea dela-eta egindako azken txostenaren arabera (2021-2022), Carralogroñokoak du, hiru aintziren artean, egoera ekologikorik onena. Carravalseca eta Muscoko aintzirek, berriz, egoera ekologiko okerragoa dute, elementu biologikoen kalitate txarraren eta uraren egoera fisiko eta kimikoaren ondorioz. Dena den, hiru aintziren egoera orokorra eskasa da, eta leheneratze neurriak hartu behar dira, haien narraidura are gehiago larritu ez dadin. Hala ere, A-124 errepidetik datorren jariatze urak Carralogroñoko ipar-mendebaldeko eremuan ura gezatzen duenez, ezin da habitat gazien kontserbazioa bermatu.

Baldintza txar horiei gehitzen bazaie aintzirek hartzen dituzten animalia eta landare espezie batzuk oso arraroak direla eta desagertzeko arrisku handian daudela eta penintsulan oso eremu gutxitan daudela banatuta, are nabarmenagoa egiten da proiektuaren xede den eremuan presaz esku hartzeko beharra. Horren adibidea dugu bisoi europarra (*Mustela lutreola*); izan ere, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera desagertzeko arriskuko espezieen kategorian sartuta dago, Araban onetsitako kudeaketa plan bat du eta UICNren arabera arrisku larrian dago.

Gorabeherak eragin dituzten faktoreak zuzentzeko, baldintza ekologikoak hobetzeko, kaltetutako habitatak lehengoratzeko eta dauden espezie mehatxatuak babesteko, eta, azken batean, aldatutako prozesu ekologikoen funtzionaltasuna berreskuratzeko, "Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintzirak ingurumen aldetik leheneratzeko proiektua"k ingurumena kontserbatzeko eta berroneratzeko hainbat jarduketa jasotzen ditu, eta, horretarako, titulartasun pribatuko zenbait lursail desjabetu behar dira aipatutako aintziren ibaiertzeko perimetroko zerrenda batean.

Presaz okupatzeko beharraren adierazpena beharrezkoa da ingurumena leheneratzeko proiektuan jasotako jarduketak berehala gauzatu ahal izatea bermatzeko; jarduketa horiek Natura 2000 Sareko Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEko Europar Batasunaren Intereseko habitatak eta balio ekologikoak berreskuratzera zuzenduta daude.

Musco, Carralogroño eta Carravalsecako aintzirak garrantzi ekologiko bereziko naturagune babestua dira, eta Laguardiako Aintzira Multzoen Biotopo Babestuan eta nazioarteko garrantzia duen hezeguneei buruzko Ramsar Hitzarmenean sartuta daude.

Proiektuan jasotako leheneratze lanen helburua da aintzira ekosistemen eta hezegune horiei lotutako fauna espezieen kontserbazio egoera hobetzea. Espezie horien artean dago bisoi europarra (*Mustela lutreola*), Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan desagertzeko arriskuan dagoen espezie gisa sailkatua eta Natura Babesteko Nazioarteko Batasunak (UICN) arrisku kritikoko espezietzat jotzen duena.

Adierazpen horren ondorioz, espezie horiek berreskuratzeko obrak eta proiektuak interes orokorrekotzat eta premiazko izapidetzat jotzen dira, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak 60. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorioztatzen du, beraz, badaudela Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan aurreikusitako presako prozedura aplikatzea justifikatzen duten inguruabarrak; izan ere, beharrezkoa da eraginpeko lurrak berehala eskuragarri izatea proiektuan jasota dauden ingurumena leheneratze jarduketak gauzatu ahal izateko.

Presako adierazpena izapidetzeko, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorriz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluarekin.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 570.057,99 eurokoa da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du naturaren kontserbazioaren eta naturaguneen kudeaketaren arloko betearazpenerako, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c).3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak behar diren ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko eta haiek okupatu beharra adierazteko, hala xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoaren martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8.1.c).7 artikuluan.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Laguardiako aintzirak (ES2110021 KBE) eremuan dauden Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektuaren informazio publikoaren izapidean aurkeztutako alegazioari erantzutea.

Bigarrena. Behin betiko onestea Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan kokaturiko Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektua eta haren onura publikoaren adierazpena egitea.

Hirugarrena. Erantzutea “Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan kokaturiko Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektua” eta eraginpeko ondasunen eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean jartzeko aldian aurkeztutako alegazioei, Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak egindako txostenean jasotakoaren arabera baietsiz edo ezetsiz.

Laugarrena. Onespena ematea “Laguardiako Aintzirak ES2110021 KBEan kokaturiko Musco, Carralogroño eta Carravalseca aintziren ingurumena leheneratzeko proiektuaren” eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina eranskinean baitago jasota.

Bosgarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Seigarrena. Adieraztea eraginpeko ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez desjabetzea izapidetzeko.

Zazpigarrena. 570.057,99 euro esleitzea eraginpeko ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, 15303. G/172151/60000156 “LIFE Global lursailak eskuratzea” partidaren kontura. Urteko zenbateko hauek izango dira: 100.057,99 euro 2026rako eta 470.000,00 euro 2027rako.

Zortzigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta/edo aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua betearazteko dagokion foru arauak ezarritako muga.

Bederatzigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Laguardiako Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 22a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila

Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO

Laguardian (Araba) Carralogroño, Musco eta Carravalsecako urmaelen ingurumena itxuraberritzeko proiektua
Proyecto de restauración ambiental de las Lagunas de Carralogroño, Musco y Carravalseca en Laguardia (Álava)

ERANSKINA / ANEXO
Udal Mugartea / Término Municipal: Laguardia

Esp./Expte. 2026/6

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	BIDE ZORRA (5 m)		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²			DÍA	HORA
		POLÍGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE DE PASO (5 m)		
32/000	VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, ROBERTO VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, BEGOÑA VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, YOLANDA	15	155	Larrea B / Pasto B	1.351			25/11/2026	9:30
33/000	VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, ROBERTO VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, BEGOÑA VALLE LOPEZ DE SAMANIEGO, YOLANDA	15	156	Larrea B / Pasto B	7.657,24				
39/000	AMELIBIA MARTINEZ DE AGUILLO, MARIA	15	168	Ez-emankor / Improductivo			108	25/11/2026	10:45
9/000	RUIZ DE URRA RUIZ, JULIAN	15	44	Larrea / Pastizal	256			25/11/2026	12:15
5/000	RUIZ DE VIÑASPRE MEDRANO, JULIAN ALEGRE RUIZ, MARIA ROSARIO	15	38	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	969			25/11/2026	13:15
12/000	PORTILLA PRESA, MARIA ISABEL PORTILLA GRIJALBA, FELISA	15	34	Mahastia / Viña	3.162			26/11/2026	10:00
8/000	CAVIA DIEZ, JAIME PORTILLA PRESA, ISABEL	15	43	Larrea / Pastizal	307			26/11/2026	11:00
11/000	CAVIA DIEZ, JAIME PORTILLA PRESA, ISABEL	15	46	Mahastia / Viña	357				
15/000	CAVIA DIEZ, JAIME PORTILLA PRESA, MARIA ISABEL	15	22	Mahastia / Viña	352				
7/000	CAVIA DIEZ, JAIME	15	42	Larrea / Pastizal	415			26/11/2026	12:00
10/000	CAVIA DIEZ, JAIME	15	45	Mahastia / Viña	457				
14/000	CAVIA DIEZ, JAIME	15	23	Mahastia / Viña	260				

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	BIDE ZORRA (5 m)		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²			DÍA	HORA
		POLÍGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE DE PASO (5 m)		
22/000	BODEGAS EGUIA SL	15	149	Mahastia / Viña	3.839			27/11/2026	9:30
23/000	BODEGAS EGUIA SL	15	151	Mahastia / Viña	15				
20/000	BODEGAS ARTEAGA SLU	15	1650	Mahastia / Viña	696			27/11/2026	10:45
37/000	LIZARANZU TOJAL, M.DIVINA NAJERA MORALES, TEODORO	15	170	Mahastia / Viña	1.407			27/11/2026	12:15
38/000	LIZARANZU TOJAL, M.DIVINA	15	169	Mahastia / Viña	589			27/11/2026	12:45
6/000	MARTINEZ MONGE, FLORENTINO GARCIA AMESTOY, M.JOSEFA	15	40	Mahastia / Viña	639			30/11/2026	9:30
35/000	MARTINEZ MONGE, FLORENTINO GARCIA AMESTOY, M.JOSEFA	15	174	Mahastia / Viña	2.162				
				Larrea B / Pasto B	122				
36/000	MARTINEZ MONGE, FLORENTINO GARCIA AMESTOY, M.JOSEFA	15	171	Mahastia / Viña	1.809				
3/000	CRESPO GARCIA DE OLANO, J. LUIS CRESPO GARCIA DE OLANO, M.CARMEN CRESPO GARCIA OLANO, AMAYA	15	36	Mahastia / Viña	2.024			30/11/2026	12:00
4/000	CRESPO GARCIA DE OLANO, J. LUIS CRESPO GARCIA DE OLANO, M.CARMEN CRESPO GARCIA OLANO, AMAYA	15	37	Mahastia / Viña	1.625				
21/000	SAN PEDRO RANDEZ, MARIA CRISTINA	15	76	Larrea B / Pasto B	1.705			01/12/2026	9:30
				Mahastia / Viña	6.850				
16/000	LOPEZ PEREZ, GREGORIO GONZALO CAMARA, ROSA	15	21	Mahastia / Viña	223			01/12/2026	11:30
30/000	LOPEZ PEREZ, GREGORIO GONZALO CAMARA, ROSA	15	59	Mahastia / Viña	1.113				
17/000	LOPEZ PEREZ, GREGORIO	15	20	Mahastia / Viña	188			01/12/2026	12:15
18/000	LOPEZ PEREZ, GREGORIO	15	19	Mahastia / Viña	508				
19/000	LOPEZ PEREZ, GREGORIO	15	18	Mahastia / Viña	892				
24/000	SERRANO RANDEZ, IGNACIO JAVIER	15	152	Mahastia / Viña	733			02/12/2026	9:30
25/000	SERRANO RANDEZ, IGNACIO JAVIER	15	153	Mahastia / Viña	450				

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK			APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²				EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	BIDE ZORRA (5 m)			
		DATOS CATASTRALES				SUPERFICIE AFECTADA m²					
Nº FINCA	TITULAR	POLÍGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE DE PASO (5 m)		DÍA	HORA
28/000	GRUPO SOLAR DE SAMANIEGO SL UNIPERSONAL	15	74	Mahastia / Viña		4.106				02/12/2026	11:45
				Larrea B / Pasto B		851					
29/000	GRUPO SOLAR DE SAMANIEGO SL UNIPERSONAL	15	61	Mahastia / Viña		1.925					
27/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	77	Larrea B / Pasto B		571				03/12/2026	10:00
				Ez-emankor / Improductivo				810			
31/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	1569	Larrea B / Pasto B		2.128,55					
34/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	159	Larrea B / Pasto B		3.598					
40/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	161	Ez-emankor / Improductivo				647			
41/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	35	Ez-emankor / Improductivo			93.420,10				
43/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	160	Ez-emankor / Improductivo			83.080,95				
44/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	22	304	Larrea B / Pasto B			6.390				
13/000	UDALA / AYUNTAMIENTO: LAGUARDIA	15	1566	Mahastia / Viña		1.477,91					
1/000	ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	15	17	Laborantzarako lurra / Tierra de labor		13.630,29					
				Larrea B / Pasto B		1.244,09					
2/000	ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	15	101	Mahastia / Viña		5.121,01					
26/000	ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	15	154	Larrea B / Pasto B		30.501,27					
42/000	ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	15	75	Ez-emankor / Improductivo		44.673,76					

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.28 06:53:03 Z